

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko maiatzaren 11tik maiatzaren 17rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/14

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko maiatzaren 6koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita lurgaineko aparkatze arautuaren eta ibilgailuak bide publikotik kendu eta gordailura eramatearen sektoreko Estatuko VI. hitzarmen kolektibo orokorra. **9673 xedapena- 47 or.**

2024/05/17

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko maiatzaren 6koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita aparkalekuen eta garajeen sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboa. **9985 xedapena- 48 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/17

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia Lan eta Enplegu saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko errepide-garraioko enpresentzako eta garraioko laguntza-jarduera osagarrietarako hitzarmen kolektiboko batzorde parekidearen 2025eko soldaten berrikusteko akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48002325011981). **III-98 xedapena- 5 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/15

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Kolektibo zaurgarrien babesa.** 1/2024 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 14koa, zeinaren bidez luzatzen baitira ohiko etxebizitzetatik

botatzea bertan behera uzteko neurriak, kolektibo zaugarriak babesteko xedez hartuak. 9699 xedapena- 4 or.

2024/05/17

- **OGASUN MINISTERIOA. Tributuak.** Ebazpena, 2024ko maiatzaren 8koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Zerga Kudeaketako Departamentuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2021eko apirilaren 8ko Ebazpena. Ebazpen horrek aitortenaren xede diren plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoetako esku-hartzaileen eta partaideen arteko komunikazio-ereduak onesten ditu. 9927 xedapena- 4 or.
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Energia-politika.** TED/463/2024 Agindua, apirilaren 24koa, zeinaren bidez ezartzen baitzaizkio gas naturalaren sektorearekin lotutako energia-politikako orientabideak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari. 9928 xedapena- 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2024/05/17

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2024 Foru Dekretua maiatzaren 7koa. Onestea Kontseiluaren Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren aldaketa. 1493e xedapena- 10 or.

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/05/13

- **ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2024 FORU DEKRETUA, maiatzaren 9koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen babesgabetasunaren arloko zerbitzu espezializatuak eta sarbide eta esku-hartze espezializatuko prozedurak arautzen dituen. I-450 xedapena- 27 or.

2024/05/17

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 178/2024 FORU AGINDUA, maiatzaren 8koa, zeinaren bidez tabako-labore guztietarako ezarritako marka fiskalak garatzeko arauak onartzen diren. **I-520 xedapena- 7 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/05/17

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga-aldaketa onesten dituen. **3496 xedapena- 35 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO